

Adiskide ona galdu dugu, solaskide atsegin eta umila

Xabier Kintana

Deia. Diario de Araba, 2004-10-05: 49.

Martin Ugalde Orradre gerrako belaunaldiaren adibide eredugarrienetako bat izan da. Andoainen 1921ean jaioa, gerra zibilaren ondorioz bere familia zatikatzen ikusi zuen, erbestealdi luze eta mingotsa dastatuz. Gaztaro osoa Venezuelan eman ondoren, ez zituen horregatik bere euskal erroak inoiz galdu, eta euskara eta euskal gaiak landu zituen "Caracasko Eusko Gaztedi", "Euzkadi", "Gudari" aldizkarietan, "Buenos Airesko Alderdi"-n, eta bertoko "Zeruko Argia"-n, "Deia"-n (euskal atalaren arduraduna izanez) eta "Egunkaria"-n beronen fundatzaileetako eta ohorezko lehendakaria izanez. Euskaraz ipuin ugari idatzi zituen (Hiltzaileak, Umeentzako kontuak, Itsasoa ur-bazter luzea da...).

Kazetari moduan Venezuelako egunkarietan hasi zen, bertako aldizkari batzuen zuzendari izatera helduz. Erdaraz ipuin eta narrazio ederrak idatzi zituen ("La semilla vieja", "Las manos grandes de la niebla", "Cuentos de inmigrantes", "Cunado los peces mueren de sed", "Las brujas de Sorjin", "Tres relatos vascos"...) eta "Unamuno y el vascuence" izeneko obra interesgarria ere, bilbotar pentsalariak gure hizkuntzari buruz zituen aurreiritziak balio gabetzeko. Ikasketak Amerikako Estatu Batuetan egin zituen. Zürich-en, Suitzan, ezkondu zen Ana Mari Martinez Urreiztietarekin, beti ere, eta bereziki bere azken urteotan, bere bizitzako lagun, sostengu eta eustazpi izandakoarekin. Hiru seme alaba izan dituzte: Unai Ona, Miren Itxaso eta Miren Ainara, hirurak Caracasen jaio eta, gurasoak bezala, euskaltzale bipilak.

Frankismoaren amaieran Euskal Herrira itzuli zenean euskara batuaren aldeko eta aurkako jarrerak hurbiltzen saiatu zen, alde bateko eta bestekoen iritziak elkarrizketetan bildurik. Txillidarekin egindako elkarrizketekin liburu bat ere egin zuen. Ildo berean, euskal problematika erazagutzeko "El problema vasco" eta "Hablando con los vascos" deritzen elkarrizketa-liburu arrakastatsuek ere prestatu zituen. Beste kultur hutsune bat betetzeko asmoz, "Síntesis de la Historia del País Vasco" ere eskaini zigun. Bera izan zen, bestalde, Euskaltzaindiaren aginduz, "El libro blanco del euskara /Euskararen liburu zuria" obraren arduraduna, 1980.eko euskalarien nazioarteko jardunaldietan ere partaidetza handia izanez. Hori dela eta, Euskararen Akademiak euskaltzain ohorezkoa izendatu zuen. Kazetaritza arloan egindako lan bikainagatik, bestalde, Euskal Herriko Unibertsitateak Honoris Causa doktore izendatu zuen. Tamalez, hain pertsona handia, atsegina eta maitearen merezimendu nabarmen horiek ez dira beti Euskal Herrikan kanpoan aintzat hartuak izan, eta bere laurogei urteetan "Egunkaria" itxi zenean, bidegabeki akusatua eta bere banku-kontuen blokeo lotsagarria pairatu behar izan du berriki epaile ezagun baten aldetik.

Martin Ugalde ezagutu dugun guztiok adiskide ona galdu dugu, solaskide atsegin eta umila, euskaltzale sutsua eta, batez ere, gizentasunaren eta euskalduntasunaren eredu imitagarria. Goian bego. Gure gogo-bihotzetan ere betiko iraunen du.